



Jasangarritasunera ko ikerketak, gazteak inspiratzeko



STEAM hezkuntza, trantsizio ekologikoa eta gaitasun berdeak
ikasgelan

Aza. 03 2023

Kod. W20-23

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Jarduera irekia

Data

Aza. 03 2023

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

2,5 ordu

Webgunea

<https://zientzia.eus/>

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

2022-2023 ikasturtean, lanketa bat egin du Elhuyarrek **jasangarritasuna eta klima-larrialdiaren inguruan**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneke Departamentuaren laguntzarekin, eta zenbait ikertzailearen parte-hartzearekin, helburu hauekin:

- Ikastetxeetan gazteekin egiteko modukoak diren ikerketa-proiektuak eta proiektu teknologiko errealak egiteko ideiak eta praktikak sortu.
- **Jasangarritasunerako eta klima-larrialdiaren inguruko hausnarketa eta ekintzak sustatzea ikasgelan**, inklusibitaterako eta eraldaketa sozialerako gakoak kontuan hartuta.

Helburuak

Klima-larrialdiaz eta jasangarritasunaz ikasgelan hausnartzeko hainbat gako eskaini.

Jasangarritasunerako ikerketa-proiektuetarako zenbait adibide aurkeztu, ikasgelan egiteko modukoak diren proiektuak proposatuta eta esperientziak partekatu.

Programa

2023-11-03

10:15 - 10:30 Erregistroa

10:30 - 11:00 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Ongietorria

Jon Abril Olaetxea | Elhuyar

Itziar Alkorta Idiakez | UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa / Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU - Zuzendari akademikoa / Directora Académica

Nagore Manzano Rodríguez | Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako departamentua

11:00 - 12:15 “Jasangarritasunerako ikerketak, gazteak inspiratzeko. Egitasmoaren gakoak”

Moderatzailea:

Aitziber Lasa Iglesias | Elhuyar Zientzia Unitateko STEAM Hezkuntza arloaren arduraduna eta proiektuaren koordinatzailea

Ikasgelarako 20 ideia gako, klima-larrialdiaz eta jasangarritasunaz hitz egitean lantzeko

Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute | Elhuyar Zientzia Unitateko Kultura Zientifikoko arloaren koordinatzailea

Ikasgelako esperientziak. Jasangarritasunerako STEAM proiektuak ikasgeletan

Joseba Aldasoro Galán | Elhuyar Zientzia Unitateko STEAM Hezkuntza Arloko kidea

Airearen kalitatea fitoarakatzen

Iker Aranjuelo Michelena | CSIC-eko ikertzailea; "Nekazaritza jasangarria eta biomonitorizazioa" ikerketa-taldea

12:15 - 12:30 Ondorioak eta agurra online parte-hartzaileei

Irakasleak



Jon Abril Olaetxea

Elhuyar, Koordinatzaile nagusia

Jon Abril Olaetxea (Bera, 1975) Komunikazio zientzietan lizentziaduna. Kultura-enpresa eta -erakundeen kudeaketan aditua. Hizkuntza aniztasunaren kudeaketa enpresan eta integratzaileko politiketan aditua. Elhuyarreko koordinatzaile nagusia da. Aurrez, Partaidetza eta eraldaketa sozialeko teknikari eta koordinatzaile izan da Elhuyarren, eta kazetari, kultur kudeatzaile eta politikari gisa ere egin dut ibilbidea. EuskaIngintzako eta kulturIngintzako hainbat erakunde eta proiektutan parte hartzen du.



Itziar Alkorta Idiakez

Uda Ikastaroak / Cursos de Verano, Zuzendari akademikoa / Directora académica

Zuzenbidean doktorea eta EHUKo Zuzenbide Zibileko irakasle titularra. Bere ikerketaren ildo nagusia bioetika da eta gai horren inguruan hainbat monografia, artikuluko zientifiko eta dibulgatzailekoak argitaratu ditu. VI eta VII Europako Programa Marko-ko 4 ikerketa-proiektutan parte hartu du, baita Programa Nazionalerako hainbat ikerketa-proiektutan ere. New Yorkeko Hastings Center for Bioethics, Filadelfiakoko Unibertsitateko Center for Bioethics eta Bordeleko Unibertsitateko irakasle bisitaria izan da. Eusko Ikaskuntzako idazkari nagusia izan zen, eta ondoren Jakiundekoa, Zientzia, Arte eta Letren Akademiakoa. UPV/EHUKo irakaskuntzako kalitate eta berrikuntzako errektoreordea 2008 eta 2012 urteen artean, eta hezkuntza-ereduaren garapenaz, kalitate-programez eta unibertsitateko irakasleen prestakuntza eta ebaluazioaz arduratzen da. 2013 eta 2015 urteen artean, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea izan zen.



Nagore Manzano Rodríguez

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-EKONOMIA SUSTAPENEN LANDA INGURUNEKO ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA



Aitziber Lasa Iglesias

Elhuyar

Industria Ingeniaria (UPV/EHU), Elhuyarren dihardu 2002az geroztik, Zientziaren eta Teknologiaren gizarteratze-lanetan eta STEAM hezkuntzari lotutako proiektuetan. Nagusiki bertako ikerketaren zabalpen-lanetan eta haurrentzako eta gazteentzako STEAM hezkuntza proiektuetan ibilia, gaur egun, Elhuyar Zientzia Unitateko STEAM Hezkuntza arloaren ardura du. Euskal Zientzia eta Teknologia Sareko ikerketaren emaitzaren zabalpenarekin lotutako zenbait proiektutan hartu du parte eta STEAM arloa eta gazteak uztartzen dituzten hainbat proiektu jarri ditu martxan Elhuyarretik: webguneak, dinamizazio-ekintzak, museografia-proiektuak... . Gaur egun Zientzia Azoka ekimenaren eta Bizilabe zentroen martxan jartzearen ardura zuzenak ditu bere gain. Bere arlotik, STEAM hezkuntzari lotutako Europako proiektuetan ere hartzen dute parte.



Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute

Elhuyar

Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute (Gasteiz, 1974) Elhuyar Fundazioan egiten du lan, zientzia-kazetaritzaren alorrean. Une honetan, Kultura Zientifikoko arloaren arduraduna da. Aurretik, Elhuyar aldizkariako zuzendari eta erredaktore eta Teknopolis telebista-saioko aurkezle eta erredaktore aritu da. Biokimikan doktorea da. Biofisika Unitatean (CSIC-EHU) egin zuen bere doktoretza, polio, GIB eta gripearen birusek zelulak infektatzeko garatu dituzten mekanismoak ikertzen.



Joseba Aldasoro Galán

Elhuyar

Joseba Aldasoro Galán(Altsasu, 1980) Nekazal Ingeniari Teknikoa eta Agrobiologian Doktorea da Nafarroako Unibertsitate Publikotik. Elhuyar fundazioan lan egiten du 2020az geroztik, zientziaren eta teknologiaren hezkuntza-proiektuetan. Elhuyarren lanean hasi aurretik ikerketan eta hezkuntza

formalean (DBHko irakaslea) eta ez-formalean aritua da.



Iker Aranjuelo Michelena

CSIC

Iker Aranjuelo Michelena (Oiartzun, 1976) Biologian lizentziatua eta Landareen Fisiologian Doktorea da Nafarroako Unibertsitatetik. Gaur egun, Agrobioteknologia Institutuko (IdAB-CSIC) ikertzailea da eta Landare Bioteknologia Saileko burua. Bere ibilbide profesionalean zehar, ingurumen-baldintza aldakorren menpe dauden zereal eta lekaleen ekoizpen jasangarri eta eraginkorra baldintzatzen duten faktoreen identifikazioan zentratu da: karbono dioxidoa, ura, tenperatura... EHUko irakaslea izandakoa da eta gaur egun Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zientzietako departamentuan ematen ditu klaseak.

Matrikula prezioak

IZEN EMATEA - AURREZ AURRE	2023-11-03 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

IZEN EMATEA - ONLINE ZUZENEAN	2023-11-03 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa